

estrategiak estrategiak estrategiak estrategiak estrate

estrategiak estrategiak **estrategiak** estrategia

estrategiak estrategiak estrategiak estrategiak estrate

estrategiak estrategiak estrategiak estrategiak strateg

estrategiak estrategiak estrategiak estrategia



IRAKURTZEKO GOGOA PIZTEKO ESTRATEGIAK



HITZ POZOITUAK

Helburu orokorrak

- Irakurtzeko interesa piztea, informazio- eta gozamen-iturri denez gero, eta irakurtzeko ohitura bultzatzea, irakurketarekin eta idazketarekin gozatuz.
- Haurren aurkako sexu-abusuari buruz hausnarketarako gaitasuna areagotzea.
- Mintzaldi idatziak ulertzea eta jarrera kritikoarekin interpretatzea.
- Ikerketa-lana sustatzea, ikasketarako eta prestakuntzarako baliabide gisa.
- Talde-lana sustatzea.

2

Orientabide orokorrak

Maite Carranzaren nobela hau tresna ona da ikasleen artean haurren sexu-abusuei buruzko sentsibilizazioa eta kontzientziazioa lantzeko.

16 urtetik gorakoentzat gomendatutako liburua da.

«Gutxienez, Espainiako populazioaren % 20k sexu-abusuak jasan ditu umetan, baina askotan, kasu horiek ez dira agerira ekartzen. Sentsibilizazioa eta prebentzioa dira ezjakintasunaren eta beldurraren aurka egiteko ditugun tresna bakarrak, eta oroitzapenak galdu dituztenei memoria berreskuratzen laguntzeko aukera ematen diguten modu bakarrak ere badira.»

Vicki Bernadet

Vicki Bernadet Fundazioaren presidentea

1. JARDUERA

(Irakurri baino lehen): «ISILTASUNA APURTUZ» ERAKUSKETA

Helburuak

- Ikasleak liburua irakurtzera motibatzea.
- Ikasleak haurren aurkako sexu-abusuaren inguruan sentsibilizatzea eta kontzientziaztea.
- Gaira hurbilduz, nobela irakurtzeko ikuspuntu berezia sustatzea.

Deskripzioa

Liburua irakurri baino lehenagoko jarduera honetan, ikasleak nobelaren gai nagusira hurbilaraztea lortu nahi da: haurren aurkako sexu-abusuetara, alegia. Hori dela eta, «Isiltasuna apurtuz» erakusketa ikustea proposatzen dugu.

Vicki Bernadet Fundazioak, bere zabalkunde-proiektuen artean, «Isiltasuna apurtuz» erakusketa ikusteko aukera eskaintzen du. Anna Jiménez fotokazetariak egindako erakusketa da, eta, besteak beste, honako hauek dira ekimen horren bitartez bilatzen diren helburuak:

- Adin txikikoen aurkako sexu-abusuen salaketa soziala egitea.
- Sentsibilizazioa piztea, modu horretan informazioa eta orientazioa emateko, eta abusu-egoera posibleak saihesteko.

Erakusketaren osagarri gisa, beste zenbait jarduera ere eskaintzen dira: hitzaldiak, tailerrak, eztabaidak... Horrela, parte-hartzea sustatu nahi da; izan ere, denok eman deza-kegu laguntza apur bat adin txikikoen aurkako sexu-abusuak prebenitzeko.

Orientabideak

Irakasle bakoitzak, jardueraren hartzaila izango den taldearen arabera eta Vicki Bernadet Fundazioaren aholkularitzarekin, bere beharrezanetara eta ikasleen mailara egokitu ahal izango du jarduera hau.

Jarduera egiteko behar den informazio guztia eta Fundazioarekin harremanetan jartzeko modua, webgune honetan:

http://www.fbernadet.org/cast/ambitos_sensibilizacion.php?idproy=35

2. JARDUERA

(Irakurri baino lehen): **GURE ERREALITATEA AZTERTZEN**

Helburuak

- Ikasleak liburua irakurtzera motibatzea.
- Ikasleak haurren aurkako sexu-abusuen inguruan sentibilizatzea eta kontzientziazatzea.
- Gaira hurbilduz, nobela irakurtzeko ikuspegi berezia sustatzea.
- Arazoaren garrantzi soziala aztertzea.
- Informazioa bilatzeko gaitasuna garatzea.
- Talde-lana sustatzea.

Deskripzioa

Jarduera honi hasiera emateko, irakasleak zuriz dagoen liburu bat erakutsiko die ikasleei. Liburuaren izenburuak informazioa bilatzera bultzatu beharko lituzke ikasleak; esate baterako: «Geuri ere gerta dakiguke...» edo «Ez da ezer gertatzen, ala?»...

Jarduera honetan, ikasleek, hiruzpalauko taldeetan, haurren sexu-abusuarekin erlazionatutako albisteak bilatu beharko dituzte komunikabideetan (Internet, egunkariak...). Aurkitzen duten albiste bakoitzeko, komentario bat egin beharko dute. Eta, modu horretan, gure liburua osatuz joango gara.

Astean zehar, tartetxo bat hartu beharko da, talde bakoitzak liburuan jaso dituen albiste berriak eta iruzkinak irakurtzeko.

Orientabideak

Ikasleek nahi duten beste luzatu daiteke proposatutako jarduera.

Jardueraren osagarri gisa, eta irakasleak hala egin behar dela uste duenean, Vicki Bernadet Fundazioaren «HAURREN AURKAKO SEXU-ABUSUA: ARAZO SOZIALA» manifestua irakur daiteke, gero denon artean horri buruz hitz egiteko.

http://www.fbernadet.org/cast/pdfs/MANIFEST_castellano.pdf

3. JARDUERA

(Irakurri bitartean): **BARBARA MOLINA ETA NURIA SOLÍS, ZEHARKAKO IRAKURKETA**

Helburuak

- Enpatia lortzea nobelako protagonistetako birekin.
- Sexu-abusuen biktimen sentimenduetan sakontzea.
- Mota horretako esperientzia batek biktimaren inguruko jendearengan izan dezakeen eragina aztertzea.
- Irakurketa kontziente eta kritikoa sustatzea.
- Talde-lana sustatzea.

Deskripzioa

Maite Carranzak liburuari eman dion egiturari esker, zeharkako irakurketa egin daiteke, istorioko protagonistetako biren sentimenduak eta emozioak lantzeko.

Jarduera bikoteka egingo da. Taldeko bikote guztietatik, erdiek Barbara Molina aztertu-ko dute, eta beste erdiek Nuria Solís.

Barbara Molina aztertu behar duten bikoteek kapitulu hauek jorratuko dituzte: 3, 5, 8, 12, 15, 18, 21, 23 eta 27.

Nuria Solís aztertu behar duten bikoteek kapitulu hauek jorratuko dituzte: 2, 11, 17, 20 eta 26.

Taldeak ez dira zentratu behar nobelako gertakarietan, baizik eta egokitu zaien pertsonaiaren sentimendu eta emozioetan (adibidez: beldurra, amorrua, erruduntasuna, ahulezia, etsipena, haserrea...), eta identifikatu dituzten sentimenduen berri ematen duten esaldiak edo paragrafoak bilatu beharko dituzte.

Ondoren, arrazoiren bat bilatu eta ulertu beharko dute, beren pertsonaiak sentsazio hori zergatik izan duen azaldu ahal izateko.

Jardueraren aurkezpena honen antzeko koadro baten bitartez egin beharko da:

.....ren SENTIMENDUAK

Adjektiboa	Liburuko esaldiak	Sentimenduaren kausak

Orientabideak

6

Azterketa liburuko hiru atalen arabera bereiztea ere egokia izan daiteke, zeren eta Barbara Molina aztertuko duten bikoteek kapitulu asko «hustu» beharko dituzte. Nuria Solís-en kasuan, berriz, analisia ez da modu horretan bereizi behar.

Hori horrela, hauxe da gure proposamena: Barbara aztertzeko orduan, bikote batzuk liburuaren lehenengo atalean oinarritu daitezela, beste batzuk bigarren atalean, eta besteak hirugarrenean.

Lehenengo atala: 3, 5 eta 8. kapituluak.

Bigarren atala: 12, 15 eta 18. kapituluak.

Hirugarren atala: 21, 23 eta 27. kapituluak.

4. JARDUERA

(Irakurri bitartean): **PUBLIZITATE-KANPAINA**

Helburuak

- Ikasleen adierazkortasuna eta hurkoaren lanarekiko errespetua sustatzea, jarduera artistiko baten bitartez.
- Sormena lantzea.
- Publizitatearen hizkera lantzea.
- Talde-lana sustatzea.

Deskripzioa

Jarduera hau hisu edo lan ikaslez osatutako taldeetan egingo da.

Ikasleek imajinatu beharko dute publizitate-agentzia bat dutela eta enkargu bat jaso dutela: haurren aurkako sexu-abusuen arazoari buruzko kontzientzia pizteko publizitate-kanpaina bat egiteko enkargua, hain zuzen ere.

Lana egiteko, argazkiak, bideoak eta hitza erabili ahal izango dute.

Ikasleei argi utzi behar zaie zein den igorri nahi den mezua: sexu-abusurik ez.

Lana amaitzean, talde bakoitzak bere proposamena aurkeztuko du. Ondoren, bozketa egingo da, mezua hoberen igortzen duen kanpaina aukeratzeko.

Orientabideak

Jarduera hau egin aurretik, interesgarria izan daiteke publizitate-kanpaina batzuk ikustea eta hizkera mota horretan aditua den norbaiten kolaborazioa izatea.

5. JARDUERA

(Irakurri ondoren): **MAITE CARRANZAREKIN HIZKETAN**

Helburuak

- Egilearengana eta haren kezketara hurbiltzea.
- Ikasleen espiritu kritikoa sustatzea.
- Talde-lana ahalbidetzea.

Deskripzioa

Hiru edo lan ikasle ko taldeetan, liburuaren inguruan Maite Carranzari egin nahiko lizkioketen 5 galdera prestatuko dituzte: nola aukeratu zuen gaia, nola egin zion aurre liburuan kontatzen denari, nola definitu zituen pertsonaiak, liburua idazteak zer eman dion maila pertsonalean... edo bere idazle-bizitzari buruzko galderak.

Ondoren, lan-talde guztien galderak bateratu, eta talde bakoitzaren galderetako bat aukeratuko da, Maite Carranzak bere webgunean (**www.maitecarranza.com**) daukan forora bidaltzeko.

Talde bakoitza arduratuko da bere galdera foroan jartzeaz. Era berean, egileak galdera horri erantzuten badio edo foroko beste parte-hartzaileekin nolabaiteko elkarrizketa sortzen bada, taldekideek horren berri ere eman beharko diete beste ikaskide guztiei.

Orientabideak

Jarduera hau prestatzeko, Maite Carranzak 2010eko apirilaren 3ko *El Periódico* egunkariari eskaini zion elkarrizketa irakur daiteke.

http://www.elperiodico.com/default.asp?idpublicacio_PK=46&idioma=CAS&idnoticia_PK=701211&idseccio_PK=1013

6. JARDUERA

(Irakurri ondoren): **LABURBILDUZ...**

Helburuak

- Haurren aurkako sexu-abusuari buruz hausnartzeko gaitasuna areagotzea.
- Ikerketa-lana sustatzea, ikasketarako eta prestakuntzarako baliabide gisa.
- Gaitasun kritikoa piztea.
- Idatziz adierazteko trebetasunak areagotzea.
- Ikasleak gatazkei aurre hartzeko herri-partaidetzan inplikatzeko.
- Talde-lana sustatzea.

Deskripzioa

Jarduera honetan, hiruzpalauko taldeetan arituz, ikasleek lan bat egin beharko dute. Lan hori ikasleek beraiek egituratuko dute, eman nahi duten informazioaren arabera. Bertan, ikasi duten guztia jasoko dute, bai eta haurren sexu-abusuari eta arazo horren ondorioei buruzko kezka ere.

Lana *Hitz pozoituak* liburuaren irakurketarekin eta egindako jarduerekin ikasitako gauzetan oinarrituko da, eta era berean, kontuan hartuko da ikasleek beren kabuz (liburuetan, Interneten, gai hau jorratzen duten fundazioetan...) aurkitu duten informazioa.

Talde guztientzat derrigorrezkoa den azken atal bat ere badago: zer egin dezakegu guk, geure eguneroko bizitzan, arazo horren sentsibilizazioan eta prebentzioan laguntzeko?

Orientabideak

Lanak zuzendu ostean eta lortutako emaitzen arabera, interesgarria izan daiteke talde bakoitzak bere laneko zatirik interesgarri edo originalena aurkeztea.